

Estrasburgon «Ajuria Eneari leial ez izatea» egotzi dio PPri EAJk

Europako Parlamentuak elkarrizketaren aurkako idatzi bat onartu du, PPk proposatuta

P Pk bultzatuta eta Espainiako beste alderdien babesaz, Europako Parlamentuak, Iruretagoienaren hilketa gaitzesteaz gain, «ekintza kriminala babesten dutenekin elkarrizketa baztertzea» onartu zuen atzo idazki batean. Horrek EAJren haserrea eragin du, «Ajuria Eneko Itunarekiko leialtasunik gabe» jokatzela dela uste baitu.

Erredakzioa / Donostia

EUROPAKO LEGEBILTZARRAK Jose Ignacio Iruretagoienaren aurkako atentatua gaitzesteko idatzia onartu zuen atzo aho batez. Legebiltzarrak elkartasuna adierazi die senideei, eta babesa eman die «horrelako krimenen aurrean babesik gabe diren demokratia guztiei». Halaber, haiek bultzatu nahi ditu «sistema demokratiko baten barruan askatasuna eta Zuzenbide Estatua» defenditzen jarrai dezaten. Idatziak dioenez, horrelako atentatuekin ETAK «euskal gizartearen eta Espainia osoan demokrazia eta Zuzenbide Estatua apurtzea» du helburu. Legebiltzarrak konprometua hartu du «terrorismoaren aurka zatiketarik gabe» lan egiteko.

Baina idatziak beste puntu bat ere badu. Puntu horrek dioenez, Europako Legebiltzarrak baztertu egiten du elkarrizketa «ekintza kriminalak lagundu, ahalbidetu, babestu, bultzatu eta egiten dituztenekin».

Puntu horrek polemika piztu du. Josu Jon Imaz EAJko eurodiputatuak, oro har idatzia onartu arren, puntu horren aurka bozkatu du, espreski idatzia puntu-



Josu Jon Imaz eurodiputatu jeltzalea.

XOUSA SIMAL


ka bozkatzela eskatu ostean. Josu Jon Imazek, prentsa ohar baten bidez, PPren jarrera kritikatu du, «PPk aurkeztu testuan, Iruretagoienaren hilketa gaitzetsi eta senitartekoei elkartasuna adierazteaz gain, baketzea lortzeko bideei buruzko jarrera alderdikoia ageri baita, Ajuria Eneko Itunaren letra eta izpirituaren aurkakoa». EAJko eurodiputatuak dioenez, «idatziaren puntu batean Ajuria Eneko Itunari babesa ematen zaion arren, edozein motatako elkarrizketari uko egitea, baita biolentzia babesten dutenekin ere, Ajuria Eneko Ituneko 10. puntuaren aurkakoa da». Josu Jon Imazen aburuz, «desegokia eta itxukeria politikoa da biolentziaren amaierari begira horrelako testu bat Europako Legebiltzarraren idatzita uztea; egun zaila

dirudien arren eta ETAK amaiera horri ateak ixten dizkion arren, euskal gizarte hori lortzeko irrikan baitago».

EAJk beste alde batetik ere kritikatu du PPren jarrera. Imazek adierazi duenez, «Europako Legebiltzarrak ez ditu aztertu ez Basauriko poliziaren hilketa, ez Olaziregirena, ez Arratibelena, ez Usabiagarena, ez Agirre ertzainarena, ez Casorena eta ez beste hainbat biktimarena ere, eta horrek biktima guztiak ez direla berdin tratatzen pentsaraz dezake, eta hori ez da batere ona». Bigarren aldia da Estrasburgoko Legebiltzarreko plenoak ETAKen ekintza bat gaitzesten duena: lehengo gaitzespen idatzia ETAK Miguel Angel Blanco Ermuko zinegotzia hil ondoren onartu zuen. Izan ere, orain arteko gaitzes-

penak presidentearen adierazpen instituzionalen bidez egin dira, eta ez plenoan eginiko eztabaiden ondorioz. Imazek gogoratu zuenez, «Europarlamentuan dauden Estatuko alderdi guztien artean idatzi gabeko akordio zehatza zegoen ETAK buruzko ebazpenak plenora ez eramateko, eztabaida horiek talde terroristaren nazioartekotze estrategia lagundu besterik ez dutelako egiten».

Imazentzat, horrelako jarrerak «beharrezko ekintza batasuna apurtzen dute». Hala, EAJko ki-deak galdetu du ea hori den «PPko buruek hainbestetan aipatzen duten demokraten batasunaren agerpen praktikoa». Azkenik, Imazek gogor gaitzetsi du «biolentzia amaitzeko moduan jarrerak eta ikuspegiak inposatu nahi izatea». X



Carlos Garaikoetxea.

A. GILLENDA

Efe agentziak jakinarazi zuenez, Joseba Egibar, Jose Antonio Rubalkaba, Jesus Egiguren, Mario Onaindia, Inazio Oliveri eta Rafael Larreina izan ziren bileran. Aurreko bilera urtarrilaren 8an egin zuten. X

Itunari bake prozesurako adostasuna bilatzea dagokiola dio Garaikoetxeak

■ Ardanzaren adierazpena esku artean duela bilduko da gaur Ajuria Eneko Mahaia

Erredakzioa / Gasteiz

GAUR goizean bilduko da Ajuria Eneko Mahaia, aurrerantzean zer egin aztertzeko. Ardanza lehendakaria aurreratu egin zen: joan den astelehenean, Itunaren 10. urteurrenean, irakurri zuen adierazpenean, elkarrizketaren bideari buruzko proposamen bat egin zuen. ETAK bere ekintzak eten ondoren guztiari buruz hitz egiteko proposatu zuen Ardanzak, baina ongi zehaztuz gero ETAK ezin izango duela gai politikoetan esku hartu eta elkarrizketa «Legebiltzarrean ordezkaritza duten alderdi politiko guztien» artekoa izango dela. Elkarrizketa horren «muga bakarra», Ardanzaren ustez, «euskal herritarren

nahien arteko kontsentsuak ezarriko du». Ikusteko dago itunkideak Ardanzak proposatuko eztabaida horretan sartzen diren edo ez. EA eta IU, behintzat, prest azaldu dira.

Carlos Garaikoetxea EAJko lehendakariaren ustez, Ajuria Eneko Mahaian bake prozesu bat bultzatuko duen «bigarren faseari» ekin beharra dago. Efe agentziari adierazi dionez, «Ajuria Eneko Itunari eman zaion eginkizuna bake prozesu baterako adostasuna bilatzea da, ez bakarrik gaitzespenak egiteko edo manifestazioak antolatzeak». Gaurko bilerari dagokionez, «eszeptikoa» dela aitortu badu ere, aurrerapausoak eman daitezkeen nahi duela argitu du. IUri

dagokionez, Madrilgo Gobernuak euskal gizartearen borondatea errespetatzeko konprometua lortu behar dela esan berri du. Garaikoetxea pozik azaldu zen beste alderdi politiko batek bat egin duelako EAren tesiekin. «Hau guk aspalditik defendatu dugu Mahaian, baina bakardade osoan. Espero dut alderdi batzuek gauza bera esatea hemen eta Madrilen», esan zuen Garaikoetxeak. «Aste honetan bertan, IUko bozeramaile bati entzun diot euskal herritarren borondatearena ez dela egokia estatu arazoak Estatuan konpondu behar direlako».

Eusko Jaurilaritza osatzen duten hiru alderdiak atzo bildu ziren bakegintzaz hitz egiteko,

Atutxak ez du eztabaidarik nahi segurtasunari buruz

■ Polizien eta ertzainen arteko istilua «profesioaren ondorio» izan zela azaldu du

Agentziak / Gasteiz

BARNE MINISTERIOAREN eta Herrizaingo Sailaren arteko eztabaidarik ez dagoela adierazi zuen atzo Juan Mari Atutxa kontseilariak. Mayor Oreja ministroak eta berak «salbuespenik gabe, herritar guztien segurtasuna bermatu» nahi dutela ziuratu zuen. Atutxak, «Ministroak badakiguzte esku dagoen guztia egiten ari garela segurtasun bermatzeko, eta berarekin hitz egingo dut gai batzuek hartuta dauzkagun neurrian», gaineratu zuen.

Segurtasun neurri batzuen indarrean jarri dituzte azken egunotan. Neurri horiek eta hurrengoak ministroari jakinaraziko dizkiola esan zuen kontseilariak, «bion artean baitago sekreturik».

Ministroaren eta bere artean Ertzaintzaren eraginkortasunari buruz eztabaidarik dagoela nabarmendu zuen Atutxak. «Lotsagarria izango litzateke etzi Nafarroan hilketa bat gertatuko balitz segurtasun indarren pasibitate edo eraginkortasunik eza kritikatzaren hasiko bagina», gaineratu zuen.

Bide batez, PPko zinegotzien segurtasunari buruzko eztabaida «lasaitzeko» eskatu zuen, «bakarrik betikoei egiten baitie mesede». Komunikabideei PPko kargu publikoen segurtasunari buruzko datuak zuzen egiteko eskatu zuen, hori «hiltzaileei beren helburuei buruz informazio emateko bidera delako. Zinegotzei beren burua babesteko gomendatzen ematea ere plan bat indarrean jartzea dela gaineratu zuen, eta «ez bakarrik herritar baten koitzaren atzean polizia baten jartzea». «Teknika asko daude baina ezin dira irratiz zuzenean eman, hori litzatekeelako hiltzaileari nork bere burua babesteko neurriei buruzko eskuliburu bat ematea».

Ertzainen paretaren kontra Bestalde, Bilboko Indautxu Polizia Nazionalaren komandariaren inguruetan polizien eta ertzainen artean izandako istiluari garrantzia kendu zioten Atutxak, eta «profesioaren ondorioz» jo. Joan den astelehenean, kaleko jantziak zihoraztearen bederatzi ertzain paretaren kontra jarri zituzten polizien identifikatzeko, komisariaren inguruan jarrera susmagarriarekin atzeman eta ETAK kideak izango zirela pentsatu baitzuten, El Mundo egunkariak atzo jakinarazi zuen. Ertzainek akreditazioa erakutsi eta polizi operazio bat egiten ari zirela azaldu zuten. X